

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak Rozalejoko Markesaren Jauregiaren (Iruña) okupazioari buruzko auzi judiziala artxibatu duen autoa errekurrituko du

*Era berean, errekurtsua jarriko dio atzo, asteartez, jasotako probidentziari, zeinen arabera, 4. Instrukzio-Epaitegiak ez zien helarazi aldeei eraikinaren okupatzaileendako arriskuei buruzko txosten teknikoa*

Asteazkena, 2018.eko abuztuak 22

Nafarroako Gobernuak erabaki du gaurko saioan apelazio bidezko errekurtsua jarriko diola joan den larunbatean jakinarazitako auto judizialari, zeinek, Nafarroako hiriburuko Alde Zaharrean kokatuta dafoen foru jabegoko Rozalejoko Markesaren Jauregiaren okupazioari buruzko auzi judiziala artxibatu baitu. Errekurtsua datozen orduotan Probintzia-Auzitegian aurkeztea aurreikusi da.

Exekutiboaren iritziz, auzia artxibatzeko erabaki judiziala extrapetita da, hau da, Gobernuak eskatu gabekoa, eta ondorioz, zuzenbidearen aurkakoa.

Era berean, Nafarroako Gobernuak aldatzeko errekurtsua aurkeztuko du atzo 4. Instrukzio-Epaitegiak emandako probidentziaren aurka, zeinen bidez, eraikinaren egoera arkitektonikoak eta osasun-egoerak okupatzaileei ekar ziezaizkieketen arriskuei buruz Ondare Zerbitzuko teknikariek landutako txostena inplikatuari helarazteari uko egin baitio Epaitegiak.